

Esanak gati alkarri  
or bertan eon ai,  
pillota ikusi orduko  
guziok jo nai;

utzi, utzi au neretzat,  
alzubenak nor beretzat,  
guchi jotako penarik  
oraindik joan etzat.

RAMON ARTOLA.




---

## I C H O G O N .

---

—¿Oroitzen da berorri  
barberocho jauna,  
úrak artzera nola  
juntzan Atauna  
berorrek bigalduta  
Blas nere laguna?....  
izaudu zuben atzo  
azkeneko eguna.  
—Ori dek izatia  
mutill kaškariña,  
ichogoteko ez dik  
egiñ alegiña;  
zergatik ez dutela  
urak kentzen miña  
berrogei egun arte  
da gauzajakiña.

MARCELINO SOROA.

---